

FOLL-LE-3-(2)

EUSKAL IDAZLEAK



«...eta lotsaturik iratzartu nintzan, eta hartu
luma eskura euskaldunen faboretan...»
Juan de Tartas

Juan de Tartas

(1.666)

EUSKAL IDAZLEAK

JUAN DE TARTAS
(1.666)

Antolatzaile:
ETXEBARRIA'tar JUAN ANJEL

LEGE-AGINDUAK BETEAK

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 197—71

ESKEINTZA:

Euskaldunen faboretan
idazkortza, burua ta biotza
maiteki erabilli zitun
GARITAONANDIA'tar GOTZON
apaiz gazteari.
(G. B.)

JUAN DE TARTAS

Oso gutxi dakigu bere bizitzaz. Zenbatgarren urtean jaio ta il zan ere ez. Cheraute'ko, Zuberoa'ko errizkako nekazari baten semea zala, doidoi.

Baiña, andiena bai ba-dakigu. Zuberoatarrek agertutako lenengo euskerazko idaxtia beronek idatzi zula. Orduko euskal idazkiak eskas ziran eta ez da arritzeko idazkera-aldetik nastu samarra izatea.

Berri-zalekeriz edo nagikeriz alperrik artzen ditu askotan erderatiko itzak, euskeraz jator zirala. Alabaiña, akats eta guzti, akats andiena bazterrera uzten daki: erderaz aritzea, alegia.

Lau atzalburutan bananduta dago idaxtia. Lau retan dakarzki antxiñakoen esanak, berearen sen-

garri edo argigarri. Egia esan, aspergarri samarra
 iten da luzean. Ez du, noski, Atsular baten txai-
 tasuna ta gatza.

Nola eman zion buruak idaxti au egin bear
 da? Berberak azaltzen digu bere itzaurrean: lo
 dditu zala zugaitz-pean, otoiak egiñez gero, ta
 ka-arma asko ta asko ikusi zitula, batzuk go-
 ntza, zeruan sartzeraiño ta beste batzuk beran-
 ta, inpernura bidean. Ta oldozketan asi ta gero
 xe garbi ikusi: azken txarra izan zuten asko,
 zitzaldiko ezjakiña izan ez ba'litz, buru argiz
 ta biotz garbiz ibilliko zirala. Bere eliztarrak
 maite-maite zitun, nunbait, bere bakuntasunean
 ta aiek argitzeko ta on-bideratzeko asmoa artu
 i sendo. Iratzartu ta lanari ekin zion.

Ontaz gaiñera beste bat ere osotu zigun:
 Arima penitentaren okupazione debotak», Or-
 ez, 1672.

Or duzu aren zitua. Ekin zuk eta eragin bes-
 ri. Ia guztiok dakiguzan batzuk lotsa apur bate-
 an esnatzen diran... euskaldunen faboretan, ja-
 kiña. Aurka egiteko, ez dute lo andirik egin
 arrik.

Etxebarria'tar Juan Anjel.

IPAR EUSKALERRIA



1

GOMENDIOSKO LETTRA

zure Iaun maitia eta ohoratia, bi soldado pobre
ldu dira Aroue'tik Bartkoitzera, zure iauregi
errian zure ikustera, zure bisitatzera eta bere
rbutzu humilen zuri ohoroskatzera. Bi soldadoak
ra, bi aita seme, ni nuzu aita, eta libruto bat
in baitut, onsa iltzeko bidiaz, hura duzu ene
me haur zurtza, ama gabe aitaganik sortia. (1)

2

erroz eta lehen izan da zure familian personaje
ndirik, Franzian, Italieta, Biarnoan, Euskal
rian, Moneineko izena gora eraman dianik. (2)

3

IRAKURTZALIARI

Ene euskara eta lengajia eztaikit aprobatia izanen
denez, bai, ala ez, badu orotarik zerbait, Zubero-
ak, Bassanabarrek eta Lapurdik eman drauko zer-
bait, baina ez oro; Arue'n egin dut neure pieza
pobria, hanko lengajia ezpada aski eder, hanko
euskarak du ogena eta ez euskaldunak. (3)

4

CAP. I

Lehen gidamendia eta lehen eskola emanen dute
bide hontan paganoek, antikitatian bizi izan diren
jende prestuek.

Segonta emanen du Eskritura Saindiak, hanbat
lege zaharrian, nula berrian irakurtzen diren pas-
saje sakratiek.

Herena emanen dute doktor saindiek alegatzen
dutien autoritate saindiek.

aurgarrena emanen du arazoiñak, hortik, hebe-
k, puntu hontara, iustoki eta apropos hedatzen
a iuntatzen ahal denak.

5

Seure gastetassunian egin dut neure eginahala
oro zahartu eta urdintu nintzarian onsa bizitzen
khas nezan amorekhatik eta gero zahartzian onsa
nil nandin eta fin on bat eta hurus bat egin
ezan. (4)

6

HIRURGARREN KAPITULIA


guzkia orienten agertzen eta ialgiten den bezain
ite, lurrian argia da, gauak eta ilhumpiak ihessi
loaz, argizagiak ere, eta bertze Zeruko Izarrek
ta planetek, ala dute bere argia eta bere klarita-
ea, bere naturaz edo empruntuz, eta iessanez har-
ganik, oro haren ahalkez gordatzen dira, itzaltzen
eta ezkapatzen, hark orienten goizian bere begi-

ONSA HILCECO BIDIA,

IŪANDE TARTAS ARVEÇO
ERRETORAC EVSCARAZ EGVINA.

MONEINECO IAVN MARQVIZARI
DEDIKATIA.

Notam fac mihi viam in qua ambulem.
Psal. 142.



ORTHECEN IACQUES ROYER, Erregu-
eren Imprimaçalia baitan, Biarnon, 1666.

ate ederra, bere bisturak, edermen handiak eta
eiñuriak mundu huni agertzen dutian puntu be-
lan. Errana ere hala da latinez: Quando sol lucet,
stellae latent. Iguzkiak argi egiten dianian,
argizagia eta bertze izarrak oro gorda bite, bihoaz
nessi, itzal bite. (5)

7

Gure adiskidia Lazaro lo dantza, baina banao
ratzar dezadan. Lazaro hila zen, alabaina lo za-
oela dio eskriturak, nik ere diot loa eta herio
iak bat direla. (6)

8

LAURGARREN KAPITULIA

Baina gure parte appala eta inferiora baita gure
gorpitzaz, itxussi da, difforme, lur eta erhautz, hala
dio Genesian. Formavit Deus hominem de limo
terrae, egin diala Ienkoak gizona lurretik, han-
bateki eder gira eta noble arimaren aldetik, eta

itxussi eta miserable gorpitzaren aldetik. Hala
erran zian ere Genesian Ienkoak Adami eta Ebari
bekhatia eginez geroz. (7)

9

AUTHORARI

Mosde Tartas Erretora
zure izena doa gora
lan honez egitiaz:
Zirela benedikatu
zeren baitzira mintzatu
onsa hiltze bidiaz.

.....

.....

.....

Uskalduna alagera adi
libru hontan ari adi
irakurtzen debotki
zer sinhitsi, zer obradu
zer behar duia galdatu
heben dutuk ossoki. (8)

P. DARHETZ, Parlamentian Ad-
bokatu eta Barkoitzeko Iugia.

AUTORARI

Euskal Erria, TARTAS,
 lauda doktor handia,
 euskaldun orok harzatz
 dugu libru hautia
 sailduki bizitzeko,
 hark doktrina saildia,
 Zelurat ioayteko
 emaiten du bidia. (9)

JUAN DE BAGUARIE Camblon-
 que eta Susmioko Erretora.

LABURPEN ONTAN AGERTZEN DIRAN
ADITZ BERENKOTIAK

EGON: zagoela
 ETZAN: dantza
 IO: dio, diot
 JOAN: doaz, bihoaz, noa

ITZ BAKANAK

ahalke
 argizagi (illargi)
 edermen
 iessan
 leiñuri
 ogen
 onsa
 urdintu

ESAKERA BITXIAK

izanen denez
 izena gora eramane
 biak bat direla

GAI JAKINGARRIAK

Euskeraren batasuna 3
 Soin-gogoak 8

OARRAK

- 1) Bertsolarien maltzurkeria edo zorrozkeria agiri du emen.
- 2) Mugagabeko izen-laguna.
- 3) Atsular'ek, ordea, onetara dio: «Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu...; eta baldin hala ezpada euskaldunek berek dute falta, eta ez Euskarak. (Gero; Irakurtzailleari. - Zarautz, 1954)
- 4) Urdintu, ulea zuritu.
- 5) Illargia. «Argizagiak dire / bozkarioz dantzatzzen» (Etxeberri: NOELAK, 54-garren orrialdea, 1970)
- 6) Bardin-bardin dirala.
- 7) Geroago, gure egunetan batez ere, gorputzari duintasun andiagoa eman zaio erlijio-irakatsietan eta teoloji-irakaspenetan.
- 8-9) Detxepare'k bardintsu dio bere buruagaitik. Ikusi: «Kontrapas», «Sautrela».

IDAZTI LAGUNTZAILLEAK:

- Mitxelena, Koldobika: «Historia de la Literatura Vasca», Minotauro - Madrid.
- Billasante, Luis, O. F. M.: «Historia de la Literatura Vasca», Sendo - Bilbao.
- Darricarrère, M. J. B.: «Onsa hilceco bidia...», Paris, 1911.
- Jaurgain: «Jean de Tartas», RIEV, I, 25.
- Omaetxebarria, Ignacio, O. F. M.: «Euskera», Zarautz, 1959.
- Lafitte, P.: «Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule», Baiona.

AGERTUTAKO IDAZTIAK

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar - Agiriak (Eleiza kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemone-tako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)

18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso) **agotado**
25. Katalunya'ko Olerkiak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkiak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkiak euskeraz
36. Españi'ko Olerkiak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A.
38. Kikero'ren eskutitzak
39. Ezpata zorrotza - Ezkutuko aria (olerkiak - antzerkia)
40. Andersen'en Ipuñiak
41. Sortaldean - Gabon - abestiak (Gallastegi - Bengoa)
42. Ego - Ameriketako olerkariak euskeraz
43. Martiriei (Tertulian)
44. Liturji - Goratzarreak II
45. Españi'ko Olerkariak euskeraz III
46. Euskal Idazleak (III) Juan de Tartas